

Dei egiten deusagu gizarteari **bardintasun** eta **lan duinaren** alde konprometitu gaitzan. Gizonen eta emakumeen arteko **hartu-emon barriak** sortu behar doguz, menderatze-azpiratze harremanak gaindituz eta persona zuzen eta osoen arteko hartu-emon oso eta zintzoa suspertuz.

Dei egiten dogu, gure Eleizan aurrera egin daigun bardintasunean, emakumeen ekarpenak eleiz alkartea erabagitasunez aberastu daian, Vatikanoko II. Kontzilioak proposatzen ebanaren haritik.

Horregaitik, bat egin gura dogu era bateko eta besteko **mobilizazioak**, batez be hainbat erakunde sozial eta sindikalek martxoaren 8rako aurreikusi daben **lanuzteagaz**.

Emakumeen aurkako ekonomia, lan, gizarte eta kultura indarkeria baztertzeko jarduera eraldatzailean konprometitzen gara, emakumeak bat eginez euren itzaropenetan, beste bizimodu bat, beste antolamendu ekonomiko eta sozial bat eta gauza guztien gaintik gizon eta emakume guztien duintasuna errespetatuko dauan kultura bat ahalbideratuko daben bide barriak zabalduz.



Zatoz salatzerara eta alkartasuna adierazotera, martxoaren 6an, martitzenez, 18:30etan, Bilboko Indautxu plazan egingo dan 15 minutuko bilkura isilera



AIZU!!!



“MARTXOAK 8: ZUZENTASUN ETA MAITASUNAREN ALDEKO BURRUKA”

Pastoral Obrera / Lan Munduan
Bilbao. Febrero 2018. Aizu N° 69

Langile Pastoralzak eta Migrazioek (Karidade eta Zuzentasunerako Eleizbarrutiko Ordezkaritza), Caritasegaz eta HOAC eta JOC mobimentuakaz batera, agiri hau eskaintzen deusuegu datorren Emakumearen Nazinoarteko Egunerako –martxoak 8-hausnarketa eta jarduerari begira

1912an, greban egozala, “*ogia gura dogu, baina baita larrosak be*” oihukatzen eben ehungintzako emakume langileek mundu zuzenagoa, non ondasun materialak, lana, soldata (**ogia**) hobeto banatuko zitzatekezan mundua, gura eben. Eta edertasun, poztasun, alaitasun eta maitasunez (larrosak) betetako mundua be amestu eben.

Feminismo garaikidearen jatorrian dagozan emakumeen burujabetze-mobimentuek zuzentasun eta bititza osoaren ideia barria sartu dabe, aurreko kontzeptuak aberastuz eta zabalduz. “Ogia” dalakoak zuzentasun ekonomikoari, gizon eta emakumeentzako aukera bardinei, banaketa barriari begira jarten gaitu. Baina “larrosak” beste urrats bat emoteko deia dira. “Larrosen zuzentasuna”, bihotzekoa da, gizon-



emakumea eta bere hartu-emonak sendatu egiten ditu, banaketa zuzenetik harago doa, bizi barria, gizatasunez betetako, ahalbideratzen daualako.

Ogiaz gainera larrosak eskatzen ebezan emakume langileok gaur egungo aldarrikapena aurreratu eban: “gitxiago lan egin, danok lan egiteko eta hobeto bizitzeko”. Euren emakume-bihotzetik, bizitzako denpora lanetik kanpoko beste denpora batzuez beteta dagoala ikusita, eremu aldarrikatzailea zabaldu eta ikuspuntu barria sartu eban langileen munduko zuzentasun eta duintasunaren aldeko burrukan. Azken batean, gaur ekonomia feministak aurkezten dituan gaiak aurreratu ebezan.




Ikuspuntu honetatik, Nazaretoko Jesusen zorientasuneko **zuzentasunaren gose eta egarria** ez da bizibide materialean agortzen eta bizimodu askatu eta osoaren gose lez ulertu behar dogu, hau da, edozein mendetasunetik askatutako, maitatzeko, gozatzeko eta bizi gehiago sortzeko askatutako bizimoduaren gose lez.

(Lucia Ramonen “Queremos el pan y las rosas. Emancipación de las mujeres y cristianismo” –HOAC argitalpenak- liburutik hartutako edo inspiratutako testuak)

Horregaitik, Nazaretoko jainkozko langilearen atzetik doan Eleiza lez, **ogia eta larrosak gura doguz danontzat** eta, batez be, **emakumeak** doguz gogoan:

- ♀ **lanean desbardintasuna jasaten dabelako, soldata askoz txikiagoak jasoz, sustapen eta igoyeretatik kanpo geratuz edo lankide edo nagusien jazarpena jasanez...**
- ♀ **patriarkatuaren kultura jasaten dabelako, etxean eta familiaren zainketan, egitekoen banaketa desbardina izanda...**
- ♀ **gitxieneko pentsinoagaz bizi diralako, nahiz eta bititza osoan lan egin...**
- ♀ **indarkeria matxista jasaten dabelako...**
- ♀ **esklabo bihurtzen dabezalako sexu eta lan esplotazioaren biktima...**
- ♀ **euren herrialdeetatik atara behar izaten dabelako gerretatik ihesi edo arazo ekonomikoengaitik, sexu erasoan edo laneko abusuen aurrean babes barik geratuz.**



“Mingarria da, Jainkoaren Amaren babespean dagoan lur honetan, hainbeste emakumek gitxiespena, mesprezua eta askotariko indarkeria jasatea”. “Ezin da «natural bihurtu» emakumeen aurkako indarkeria, gure alkarteetan emakumeak dauan protagonismoa onartzen ez dauan kultura matxistari eutsiz”. “Ez da bidezkoa beste aldera begiratu eta hainbeste emakumeren, batez be gaztetxoan, duintasunaren «zapalketaren» aurrean ezer ez egitea” (Frantzisko Aita Santuaren mezua Puerto Maldonado-Perun)